EH Bildu talde politikoa

Ijentea, 1Tel.: 943481027 -www.donostia.eus -
20003 Donostia

EH Bildu talde politikoa

MOZIO ARRUNTA

BENTA BERRIKO ETXEBIZITZA BABESTUETAKO MAIZTERREN EGOERA

EH BILDU udal-taldearen bozeramaile Juan Karlos Izagirre Hortelanok, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta **MOZIO ARRUNT** hau aurkeztu du, Benta Berriko etxebizitza babestuetako maizterren egoera dela eta.

JUSTIFIKAZIOA

Azkeneko asteotan, burofax batzuk jaso dituzte Benta Berriko 510 etxebizitza babestuetako maizterrek. Urtebete baino lehen etxebizitza horiek libre utzi beharko dituztela esaten diete. Burofax horiek jaso dituztenean, kezka eta ezinegona sortu zaie –logikoa den bezala– bizilagunei.

1998an esleitu zituzten Resurrección Maria de Azkue kalean, Xalbador Bertsolariaren kalean eta Jose Maria Sert plazan diren etxebizitza horiek. Etxebizitza babestu guztiek ez zeukaten orain daukaten kalifikazio iraunkorrik orduan.

Metrovacesa eta Vallehermoso enpresei eman zien Eusko Jaurlaritzak 510 etxebizitza babestu horiek eraikitzeko azalera-eskubidearen lagapena, 75 urterako. Ondoren, Testa Residencial sozietatearekin bat egin zuten bi enpresa horiek, eta Testa Residencial-i eskualdatu zioten haiek zeukaten azalera eskubidea gero. Testa Homes da gaur egun sozietate hura, eta Blackstone funtsaren parte da.

Ez dugu ahaztu behar Babes Publikoko Etxebizitza (BPE) kalifikazioa daukatela etxebizitza horiek oraindik ere, eta edozein jabetza aldaketa egitea, Eusko Jaurlaritzaren Administrazioak lehentasunez erosteko eskubideen mende dagoela –hura baita lurzoruaren eskubidearen titularra–, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza sailburuaren Aginduan adierazitako prezioan erosi ere.

Alde horretatik, arauak jartzen du etxebizitza horien titulartasunaren edozein eskualdaketa Eusko Jaurlaritzari jakinarazi behar zaiola aurrena, etxebizitza horiek lehentasunez eskuratzeko eskubideak baliatu ahal izan ditzan hark, hala irizten badio. Guk dakigula, ez da araudiak agintzen duen jakinarazpen hori egin, eta, ezta, beraz, administrazio jarduleak lehentasunezko eskuratze-eskubide hori baliatzeko aukera izan ere.

Horiek horrela direla, hauxe da EH Bildu udal taldeak dakarren **MOZIO ARRUNTA:**

1.- Eusko Jaurlaritzari eskatzen diogu aztertzeko eta, hala badagokio, egiteko Benta Berriko 510 etxebizitza babestu horiek lehentasunez eskuratzeko eskubidea gauzatzeko egin behar diren ekintza legalak.

2.- Era berean, Eusko Jaurlaritzari eskatzen diogu, etxebizitza horiek eskuratutakoan, babes publikoko etxebizitza kalifizio iraunkorra jartzeko, deklarazio horri dagozkion prezio-mugekin batera.

EH Bildu talde politikoa

Ijentea, 1Tel.: 943481027 -www.donostia.eS -
20003 Donostia

EH Bildu talde politikoa

3.- Era berean, Eusko Jaurlaritzari eskatzen diogu unean-unean emateko etxebizitza horien inguruan egiten dituen ekintza guztien informazioa Benta Berriko "Alokairu" maizterren/bizilagunen elkarteari eta gainerako interesdunei.

Donostia, 2026ko martxoaren 6a

Juan Karlos Izagirre Hortelano
EH Bildu udal-tadearen bozeramailea